

HIRIGINTZAREN OINARRIAK

Unai Fernández de Betoño Sáenz de Lacuesta
UEU-UPV/EHU argitalaxeak, 176 or.
Bilbo, 2014

Aipagai dugun liburuaren izenburuaz mintzo, zuhurtziaz jakiteke geldi gaitzke, lehenengo unean bederen, haren gakoak horren hitz gutxitan gure aitzinean irekitzen digun munduaz. Hala nola, haren bolumena ikusirik ale «vitrubiano» bat esku artean ez dugula erraz suma dezakegu, baina, hala ere, ikerketa teknikoak suposatzeaz gain ildo zehatzetan zedarrituriko hezkuntza-proposamen didaktikoa dela ere pentsa genezake, alegia Arkitektura Eskolako unibertsitarioei zuzendua, edota beste autore batzuen ekarpenak euskarara itzultzeko ahalegin trebea baizen oparoa, gure herriko hiztunentzat izan dezakegun urritasunagatik, Manuel Solà-Moralesen kasuan duela urte batzuk egin zuten gisan. Irakurketa sakonaren hastapenak, aldiz, bestelako saiakera mamitsu eta biribilaren aurrean jartzen gaitu; «hirigintzaren oinarriak» beraiek perspektiba historikoz gaurkotasunera ekartzen dizkiguna, diziplinarteko interesdun ororentzat txit baliagarria, eta hirigintzaren teoria, gogoeta, metodoa edota ikerkuntza maisuki eguneratzen dituen deskribapenez gaindiko analisi sendoekin, terminologiaren aukeraketa eta erabilera zuzenarekin, lur-planetatik hasi eta Euskal Herriko egunerokotasunera urreratzen dizkigun adibide ulergarrien eskema errepikakor baina mesedegarriarekin eta, oro har, euskarazko berba-jario aberats eta sano aproposarekin.



1. irudia. *Hirigintzaren oinarriak*, argitalpenaren azala.

Jada eskarmentu handiko arkitekto eta hirigintzaren alorreko aditua dugun Unai Fernández de Betoño, Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan Lurralde Antolakuntzako irakasle izateaz beste, Udako Euskal Unibertsitatean ere urte luzez lan eskerga buruturikoa dugu; horrenbestez, ikas-materialen prestaketan, aldizkarien gehigarrietan eta zenbait erakunde publiko-profesionaletan bere parte-hartzearen arrastoak garbiro gailenduz (esaterako, *Aldiri* arkitektura eta hirigintzako euskal argitalpenaren «alma mater» direnetariko bat). Autorearen hirugarren testu luze hau, halaber, orain arteko bere pentsamendua laburbiltzen duen sintesizat har dezakegu, UEUK eta UPV/EHUK argitara ematen lagundurikoa, 2012 eta 2014ko beste bien ondoren (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak eta Asterok hurrenez hurren posible egindakoak). Esker mila hortaz UEUri ere, zeren oraindik euskarazko material eta dokumentu mordoa, lan zientifikoak gehientsuenak, paperezko edizioan emateko ahalegina ez baita makala; ziurrenik mirakulua etorkizun hurbilean.

BOST EGUNETAN IRAKUR DAITEKEEN LIBURUA

«Gizabanakoentzat euren ingurua auzoa da, joan-etorriko ibilbide batzuk, lurraldeko puntu konkrituak adierazten dituztenak».

J. Borja¹

Aldi berean dentsoa eta irakurteraza da, gozagarria; bere egiturak denbora dezente izanez gero bost egunetan irakurtzea duda barik egiten du zilegi. Aurkibidean sinpletasunez zein arduraz eskaintzen ditu edukiak, nozio klabeen arabera agerturikoak, eta funtsik nabarmenena U. Fernández de Betoñok aurkezten digu portadaren atzealdeko paragrafoetan: «Adreilu-burbuilaren karira ugaldutako negozio ilunek itzal handiegia egin dioten honetan, beharbada, inoiz baino egokiagoa da hirigintzaren oinarriak ezartzen saiatzea. Betiere, hiriaren dimentsio-aniztasuna kontuan hartuz, hau da, lurralde-substratuaren, arkitektura-formaren, administrazio-politiken eta gizarte-dinamiken esfera osagarriak aintzat hartuz».

Lehen eguna

«Hiriko bihurtune administratiboetan barrena...».

H. Bergson²

Aurreneko eguna sarreraren nondik norakoek baldintzatuko digute: «Hiriaren dimentsio-aniztasuna». «Substratu»en pilaketaz metaturiko «sedimentu-geruza» definiezina. Aldo Rossi XX. mendeko arkitekto italiar ospetsuak haren formaz, lekuaz eta garaian garaiko gauza «iraungarri»ez gure arreta piztuko luke. Bestalde, autoreak berariaz aipatzen dituen Lewis Mumford eta beste askok izaera soziokulturala zein dimentsio anitzekoa goren puntuan jarriko lukete; kolektibotasunaren topaleku eta aldi berean gizakiaren jarduera guztien agertoki. Ezegonkortasunetik egonkortasunera

1. Borja, J. (2005): «Democracia y buen gobierno. Participación ciudadana e innovación política. La gestión de proximidad», *Declaración del 10 de marzo de 2006*, 15 (norberaren itzulpena).

2. Bergson, H. (1934/2011): *La pensée et le mouvant. Essais et conférences*, 59 (norberaren itzulpena).

iragabidea, hirian toki-espazio funtzionalak eta sinbolikoak adosten dira (partzelak, sarbideak, irtenbideak, publikoa/pribatua), eta beste ororekin harremanean politikaren esparrua zentzu zabalean, enparantza, «agora» eta «foroa» José Ortega y Gasset humanista eta filosofoaren tamainako pertsonaien ikuspuntutik. Erlazio estuan eraikin publikoa; mugarría, erakarpen-puntua eta jabetza. Hortik hasita ez zaigu kostako monumentuaren logika hiri-dinamikan hautematea eta finkatzea. Konplexua eta heterogeneoa denaren agertokia eta sarritan estereotipoz hornitua; konpaktua eta lausoa.

Saihestu gabe ditugun kontrakotasunek definizio konkretuetara garamatzate: «Terra», «Urbs», «Polis» eta «Civitas». Fernández de Betoñok «Terra» dimentsioarekin osatuko ditu dagoeneko irentsiak ditugun beste hirurak. Kokapena eta geografia dira «Terra» horrekin izendatzen den hiriaren erroa, lurralde-eremuaren moldeak modu integralean bere gain hartzen dituenean eta azken urteotako paradigmen karian; ingurumena, ekologismoa, efizientzia energetikoa, kontsumo desorekatua eta «Urbs» bere dimentsio formal eraikia. «Polis»ak elementu «ukigarriak» bezainbeste «ez-ukigarriak» barnebiltzen ditu; esfera «politiko-administrabioa», azkenez «Civitas» hiritargoa edo «jendartea» den bitartean, betebeharrak eta eskubideetan partaide izatea.

Hirigintzak jarduera-eskala desberdinetan hiriaren «denboraldiak» adierazten ditu espazialtasuna etorkizunera proiektatuz. Autorearen esanetan, adibidez, diziplina zenbait zeharkatu ditu bere ibilbidean: artea (arazo formal eta hein batean «subjektiboa»), zientzia (bere horretan funtzionala eta agian «objektiboagoa») aldagai zientifikoetatik gertuago (Ildefonso Cerdàren Urbanizazioaren Teoria Orokorra kasurako), batez ere «Urbs» et «Civitas» izaerari men eginez; edo gizartea eraldatzeko tresna, gibeletako kontzeptuei «Polis» delakoarena gehituz.

Horiek eta beste hainbeste barneratzea izango da lehen eguneko afera. Izan ere, segida nahiko erraz eta bigunean azaltzen doaz kontzeptuok, horrek guztiak bide bat eta hausnarketa bat proposatzen eta markatzen digularik, ibilaldi honetan ausartu nahi izanez gero.

Bigarren eguna

«Gazte-gaztetatik neure buruari galdegiten nion zenbateraino definitzen zuen jendea bizitoki zuen espazioak. Zenbat mugatzen edo erakartzen zuen auzuneak, eraikinaren formak, paisaiak eta beste pertsonak «ibilbide pertsonala» deritzogun aukeraketa eta betebeharren multzo hori? Apur bat hasiagoa eta heziagoa nintzenean konturatu nintzen jendeak ere markatzen zuela bizi zen espazioa».

M. Iglesias³

«Terra» dimentsio horren ulerkera lurraldeari lotua da hain zuzen bigarren eguneko kontzentrazio-tartea. Lurraldearen aspektu anizkoitzak adimenera dakartzkigu autoreak; sistema geografiko, ekologiko, soziologiko eta funtzionala izaki. Esanahi

3. Iglesias, M. (2015-III-20): «Políticas sociales desde la ciudad», *Blog de Gestión de la Ciudad y Urbanismo*, UOC (Universitat Oberta de Catalunya). Norberaren itzulpena.

polisemikodun izena beraz, habitat delakoari kultura gainjartzen zaio eta horri «giza identitatearen geruza». Sarri askotan errugabe ahantzia dugun aspaldiko Patrick Geddes gogoan, haren XX. mende-hasierako haranen sekzio eta klasifikazioak Euskal Herrian ere beharbada esfortzu handirik gabe identifika ditzakegu: meatzaria, egurgilea, ehiztaria, artzaina, nekazaria, lorezaina eta arrantzalea. Mendi-tontor edo gailurretik itsas bazterreko kostaldera kilometro eskasetan profil topografiko eta «kulturala» egin genezake aldaera txiki batzuekin. Horretaz gain, kontu egiten da lurraldea komunikazio-bideen zabaltoki bilakatzeko prozesuaz eta garraio-bideen gailentze horrek errealitate topografikoaren banaketan eta deserrotzean dituen eragin zein ondorioez, globalizazioaren logikak gure egunetan areagoturik.

Garai historikoetatik aldenduriko erabilera berriek bailararen unitatea deskubritu zuten hiriburuen zentraltasunen aurrean lurraldea aldarrikatuz (baita espazio urbanoan bertan garaturiko ideia berritzaileak ere, lorategi-hiriarena adibidez), baina lurralde horren kolonizazioa ia erabatekoa abian jartzen da lurraldera hedaturiko landa-eremuaren mesedetan. Bertan kokatzen dira kommutazioko elementuak eta hiriak ingurue-tara ziprztintzen dituen zerbitzu pisutsuak, gertutasunean kasik inoren gustukoak ez direnak; portuak, aireportuak, ezein motatako terminalak, industrialdeak eta parke teknologikoak, salerosketarako merkataritza-gune erraldoiak eta abar, mugikortasun eta komunikazio-fluxuak ardatz eta azpiegitura nabarmenenak bihurtuz, alderdi ekonomikoak beste alorrak bere baitan barnebiltzen dituelarik (ekologia-ingurumena, soziokulturala, administrazioaren zientzia eta politika publikoa), ustez garapen orekatua eta «jasangarria» zein «bizi-kalitatea» hobetzeko, aldi berean maiz eskalaz kanpo gelditzen den eta atzemateko zaila den «inguruaren babesa» lortzeko.

Geografiaren gidalerroei ez jarraitzeak bailararen osotasunean matxurak egitea bezalako paradoxak badakartza, Euskal Autonomia Erkidegoko eredia batez ere aztertzen du egileak eta araudi edo legediak ekarri zituen desegokitasunak: area funtzionalak, isurialdeen arteko banalerroak, eta modelo orok herri-finkamenduarekin duen erlazioa:

Hau guztiau erabat erlazonatuta dago ohiko hirigintza eta lurralde-antolakuntzarekin, zeren eta, Julio Caro Baroja antropologo eta historialariak 1949an ohartarazi bezala, hiru unitate geografiko nagusi horiekin batera, hiru herri-finkamendu mota ezberdin garatu ziren Euskal Herrian: baserriz osatutako auzo barreiatuak isurialde kantauriarrean, herri txiki eta gertuak goi-ordokietan —Arabako Lautadan zein Iruñerrian—, eta herri handi eta urrunak hegoaldean. [...] Caro Barojaren ustez, hiru finkamendu edo herri mota bereizten dira haien kokalekuaren arabera (2000: 30): ibai edo erreka baten maldan edo mendi-mazelan [...], ibai edo erreka batetik gertuko muinoan edo goi-ordokian [...] ibai edo erreka batetik gertuko behe-ibar edo lautada zabalagoan (Fernández de Betoño, 2014: 19, 27).

Zeresanik ez, hirurak ur-iturrietatik gertu eta gehientsuenak ibaien ahoetan bezain ugariak itsasoak bustitako itsasertzean. Baten batzuk defentsa-muinoetan eta berebiziko garrantziadun bideen gurutzeetan ere (Donejakuekoa besteak beste eta haren adarrak). Edonola ere, Euskal Herriko errealitate berezituak azken finean Europako lurralde-egitura orokorrarekin hartu-emanak dituzenez, hiri-sareek eskuratu dute berebiziko garrantzia sistema bateratu legez kohesio-egitura eskematiko teorikoen baitan; hor agertzen dira lehen lerroak eta bigarren lerroak,

erdiguneak eta inguruak beren hierarkia eta hedatze-eremuekin. Hazkundeak, dena dela, betiko erdiguneak aztoratu eta biderkatu ditu beraien arteko kompetentzia nolabait ekonomikoa eraginez metropoli aglomeratuen zein eskualdeen mailan. Nodoak, hortaz, garrantzi erabakigarrikoak izan daitezke lokala/globala diskurtsoan lurraldearen ehuneko kezkarria hiri bihurtzen doalarik, baita Euskal Herriko panoraman ere. Munduari dagoeneko hiri barreiatuaren antza nabaritzen dio autoreak, muga gero eta lausoagoekin, definitzeko zailak eta «artxipiologo etenak» han-hemenka, globalizazio-fenomenoari helduta.

Azkenez, «lurraldearen eraikuntzan» paisaia termino erabili bezain iheskorriari dedikatzen dizkio autoreak zenbait oharkizun. Definizioak definizio, espazio landugabe («saltus») edo jendeztatu eta laboratu («ager») bezalako kalifikazio banagarriari pertzepzioaren ezaugarria gaineratu behar zaie eta gizakiak medioarekin (bizitokiarekin) izan duen etengabeko elkarrekintza latza, deserosoa, giza domeinuzko historia luzea eta unereren baten edo bestean samurra eta oparoa. «Lur-puska» (geografikoa) eta «eraikuntza mentala» (pertzepzio subjektiboaren ahalmena) adiera ugari hitz konposatuak darabiltza autoreak, etekinak ateratzen dituen gizaki produzitzaileaz gain, edota hiriz hiri abiada bizian zeharkatu behar den espazio-denbora halabeharrezkoa, aisialdira goazenean ere, zeren eta «“Homo Aestheticus” delakoaren begirada estetizatzaileak du paisaia aurkitzen» (Fernández de Betoño, 2014: 30). Eta izatez lurraldea jabegoa ere bada, neurtu eta geometrikoki (arrazionalki) zedarritu daitekeena (erromatarrek ez beste nekazariak ere egiten baitzuten).

Hirugarren eguna

«Estilo internazionalak arkitektura zientifikoaren balio iraultzaileak bertan behera utzi zituen, seguruenik arkitektura modernoa artearen esparruan kokatu zelako, artea garai horretan burgesiaren eta jabeen ideologiaren adierazpena baitzen».

R. Rieiro⁴

Saio honetan gehiago irakurri eta barneratu behar da, baina horrek ez dio inondik ere hariari interesa murrizten. «Urbs» edo «formaren dimentsioa», hirien morfologiari atxikia, hirigintzarako tresna sinplifikatua litzateke. Hemen ere espazio publiko pribatuaren binomioak bereizten ditugu, alde batetik, hiri-espazioa partzela pribatuekin bada ere nolabait «publikoagoa» egiten duena, eta, bestetik, landa-lurzoru kasik orotarik pribatua, bereizten ditugu, sistema kolektiboak kenduta; batik bat lurzoruko «arteriak», zainak.

Espazioaren oinarrizko eskematizazio-prozesuak aditzera ematen dizkigu autoreak beraien elementu nagusiekin, baita horrek dakartzan funtzioak ere hiri mota desberdinen garapenean, sarritan metaforak baliatuz (hiri-makina, hiri kosmikoa, etab.), baina azken finean hutsaren eta betearen arteko erlazioak eguneratzeko balioa dutenak (hutsuneak masan, objektuak espazioan...). Gaur egun hirigintza barreiatua da hirigune tradizionaletatik kanpo asma dezakeguna (landareen artean sakabanatzen dena), eta horren aurrean kalearen balioa berreskuratu behar da

4. Rieiro, R. (2013): «Denboraren zauriei buruz. Prozesu materialen aztarnak ezkutatzeari uko egitearen inguruan», *Aldiri. Arkitektura eta Abar*, 15, Bilbao, UEU, 21.

espazio publiko legez. Espazio publikoa eta «kalea» ikuspuntu soziokulturaletik Manuel Delgado eta beste antropologo batzuentzat alderagarriak badira ere, gurean «kaleak» konnotazio negatiboak izan ditu edo ez hain positiboak ere:

Euskaldunon kontziente kolektiboan halako kutsu negatiboa eduki du kaleak. Baserriari kontrakarri zaion mundua deskribatzeko terminoa izaki, kale hitzak hiri osoa izendatzeko balio izan du, eta hala izaten jarraitzen du: [...] kalea ia-ia infernuaren –erdal munduaren– sinonimo balitz bezala. Ez da harrizkoa, hortaz, «kalekume» termino mespretxuz oraindik erabili izatea, edo «kale egin» hedaturazko adieraren existentzia, hutsegiteak adierazteko, hain zuzen (Fernández de Betoño, 2014: 40).

Kalea, beraz, kulturalki eta soziologikoki «susmagarria» da, hiriaren ordezkari sinboliko gisa, baina haren funtzionaltasunak, bestalde, espazio urbanoan eragin erabakigarria du, bai sare horren gainetik bai «azpitik» (lur-azpitik) doazen osagai ezinbestekoentzat hiriaren biziraupenerako. Kalearekin batera plaza edo enparantza publikoaren inportantzia azpimarratzen du autoreak, bertan burutzen dira arlo guztietako ekitaldiak, festetatik aldarrikapenetaraino, merkatuaz gain edota justizia-prozesuak Europako hamaika tokitan gertatzen zen moduan (Pariseko Place de la Grève mitikoa), eta Ortega y Gasseten beste ideia baten arabera, hiria bera fatxadek inguratzen duten hutsunea litzakete (enparantza batzuk sortu izan dira etheen atzealde ziztrinek inguraturiko zoru iharretan, Bilboko Plaza Barri neoklasiko berantiarra, urrunago joan gabe).

Izaera publikoaren sinonimo, «agora» grekoaren eta «foro» erromatarren arteko diferentziak hautematen dizkigu autoreak, espazio librearen funtzioari dagokionez (pribilegiozkoa edo hondarrekoa) eta simetria-ardatzen antolamendu zorrotzari dagokionez. Hortik Errenazimentura eramaten gaitu, perspektibaren asmakizunera, Barrokoko hiri-agertokira, Ilustrazioaren aztarnak Euskal Herrian zelakoak ditugun agertu arte. Azkenik, garai modernoagoan, trafikoa bideratzeko glorietak lekuko, ez da erraza haiei plazaren izaera ematea, baina milaka ditugu eskulturaz eta monumentuz dekoratuak agertzen zaizkigun halako errotondak ere. Azken boladan, badirudi plazaren garrantzia jendartearentzat nola edo hala berpizteko ahaleginetan dugula. Plazaren aldamenean hiri-lorategiak beti izan du zerbait geldoagoa, baketsuagoa, lasaiagoa eta barnekoiagoa; bertan aurkitzen dira erabilgarritasuna, gozamina eta sinbolismoa. Lorategi ohikoek berdeguneak artikulatzen dituzte, baina badira «gogorragoak» direnak ere. «Urbs» delako hiri-formaren bilakaeran garraibideak eta mugikortasuna aipatzen dira; historiako lehendabiziko obra publikoetatik (galtzadak eta portuak) aurrera segituz, masa-garraibideen garapenaraino. Hiriguneaz aparte, eskualdeak harrapatzen eta irensten dituzte, nahiz eta guretzat sekulako abantailak izan eta «paisaia familiarrak» eratu (trenbideen zirrikitu eta zauri iraunkorrak, azpiegitura handiak, etab.). Izan ere, desplazamenduen erraztasunak posible egin zuen lorategi-hirien⁵ eta bestelako saiakeren ugalketa, baina trenaren eragina

5. Jatorrian langileentzat pentsatuak (kooperatiba-erregimenean sustaturik), baina ondoren sektore aberatsagoentzat produzituak, «lorategi-hiriok hiri-hazkunde mota berria osatuko zuten, bertako egoileei hiriaren eta landaren arteko hirigintza-nahasketa orekatu bat eskaintzeko helburuarekin, noiz eta industria-hiriguneetako bizi baldintzak —kutsaduragatik, jende pilaketagatik— gehien okerrarazten ari zirenean» (Fernández de Betoño, 2014: 67). Hori bai, argi uzten du autoreak lorategi-hiriok ez zutela zerikusi handirik XX. mendearen amaierako etxebizitza familiabakarrekin, non kalea desagertzen den autobideak janda.

urriagoa izan zen autoarekin alderatuta (ikusi beharko urte batzuen buruan nolakoa den Abiadura Handiko Trenaren eragin erreala). Autoarekin aldiriak biderkatu ziren zeharo eta bizilekuak han-hemenka sakabanatu, lurraldean barna puzten den hiri hedakorraren mesedetan (dentsitate baxua eta «urban sprawl» deituriko fenomeno erabat mundiala, beharbada Ameriketako Estatu Batuetako ereduetatik hasita: F. L. Wright adibidez). Bestalde, «autoaren hiria» eta «garraiobidearen hiria» (elkarrengandik urrunegi dauden kale-errepide itzelak etxe-ilarekin aldamenean) oso argi atzematen ziren arrazionalismoaren hirigintzaren asmoetan zein errealitate bihurturiko apustuetan; Chandilarrh edota Brasilia. Horixe baitzen Mugimendu Modernoaren eta Arkitektura Estilo Internazionalaren bloke irekia, «superetxadia» eta zonifikazioaren doktrina, CIAM kongresuetatik eta Atenaseko Gutunetik eratorria 1930eko hamarkadan. Ordena irekiko hiri-ehundura, garraio autonomoarentzat espresuki egina oinezkoek galera handiak pairatuz, modu isolatuan eraikitako bloke-linealen arteko espazio izugarrietan galdurik. Lehengo hiriarekiko «autistik», hiri-egituran integratu ez baziren ere, ezin dugu ahaztu erro ideologikoa abangoardiaren eta arrazionalismo eraikitzailearen iturrietatik heldu zitzaigula (modernitatea garaile zeneko aroa aurrekoarekin apurtuz, eta originaltasun estetikoaren balioztapena), gizarte-aldaketa eta erabateko intentzio iraultzaile irmoekin, baina, alegia, 1950etik 1970era doazen hamarraldietako garapenezko arkitekturaren magalean amildurik. Hori bai, gaur egungo hirigintzan «irisgarritasun» terminoa «mugikortasuna» ordezkatzu omen doa. Kuriosoa izanda ere, «urbanismo postmoderno»aren baitan zabalgunek burgesen ezaugarri batzuk berreskuratuko dira; kaleak XX. mendearen erdialdean ezabatua zuen protagonismoa errekuertatuz, baina aldi berean aurreko egoeretan zuenetik apur bat galduz, zeren oinezkoak kaletik edota etxadien barneko patio semi-publikoetatik ibil baitaitezke trankil asko. Autoentzako sotoen tamaina ere nabari haziko da, etxe-uharte edo bloke «perimetralak» kontzepzio estetiko antzeko eta aspergarri jarraituz. Gako postmoderno ez baita jadanik apurketa, baizik eta galdera, eta, asko jota, berrikuspena.

Esandakoari eutsirik, itzalean eraikinen topologia ere badago, besteekin zuzenean erlazionatua. Oro har, sekulako ekaitza eragiten duen tximeletaren hegaldiaren antzean, den-dena harremanetan dago: partzela etxearen banaketarekin eta berori eraikin osoarekin, etxebizitzaren barne-espazioen tamainak nolabait hiriaren forma bera baldintzatuz. Hortik aurrera, hazkunde motak multzoketak irudikatuko ditu, eta agian behar baino gehiagotan «hiriaren proiektu konplexua eraikinen proiektura [eraikinen lerrokadurara]» (Fernández de Betoño, 2014: 85) murrizten da. Formaren dimentsioa definitzen duten aspektu hauen barnean beraz, hiri-hazkunde motak ere tentu handiz kontuan hartzekoak dira, ikuspegi morfologikoak azaltzeko hiru ekintzaren eraginpean: partzelazioa (lursailen banaketa), urbanizazioa (azpiegiturak) eta eraikuntza (arkitektura). Hiriaren «Tempoa» (denboraren dimentsioa) adierazten dute sarritan ordena horretan edota aldrebesturik; hortxe antzematen da hiri-plangintzaren erronka. Nola edo hala, historikoki dentsifikazio-prozesuak suertatu dira eta horrek eragin ditu hazkunde espontaneo eta bestelako arazoak. Euskal Herrian hiri gotortuak, Erdi Aroko hiribilduak eta elizateak arruntak liriateke, baita XVIII. eta XIX. mendeetan Europatik zebiltzan zabalgunek ere beraien lerrokadura-plano eta etxe-uharteekin.

Laugarren eguna

«Kasu adierazgarri bat litzateke espazio urbanoan ia beti umeez jasotzen duten arreta: beti gainbegiratuak eta kontrolpean; haiei espazio itxiak erreserbatzen zaizkie etxeko animalien tankeran (kondizio hiritarraren metafora peto-peto)».

J. Borja⁶

Une honetan, noiz edo noiz denon ahotan izan den zonifikazioaz arituko zaigu autorea. Zonifikazioa eta hirigintza bera, jakintza espezializatu legez, elkarren ondoan egon dira ustezko hiri-arazoak konpontzeko, Industria Iraultzaz geroko egoera berritik aurrera. Hirigintza eta modernitatea, beraz, zonifikazioarekin kateatuta aurkituko ditugu, eta berau gailentzen denean, hiritarren artean batik bat oinezkoak galtzen aterako direla ohartzen gara: karrika estuetatik dabiltzanak, hiri historikoetako plazetan aisatzen direnak edota hurrak, adibidez, galtzaile hiri-monstruoaren erraietan. XIX. eta XX. mendeen tartean lehendabizi lorategi-hiria baldin bazen, Mugimendu Modernoak hiri irekia eta zonifikatua aldarrikatuko du. Zeren espazialki bereizi behar baitira zonak, loteak, dentsitateak eta abar erabileraren arabera: industrialak, bizitzekoak, aisialdirakoak, erosketak egitekoak, irakaskuntzakoak, osasunarena, komunikazioen bateratze-puntuak... Sektoreen banakuntzak, hastapeneko asmoa ez bazen ere, klase-egituraketa eta segregazioa areagotuko zituen eta ez zuen auzoaren garrantzia mantenduko, zeina gizarte-ordenamenduaren unitate bereizgarrienetakoa baita zenbait soziologorentzat. Halaber, komunitateko hirigintzaren oinarri zonifikazio zorrotzegi horren aurka jarduteko. Auzoa bera «polis»ari lotzen zaion unitate bezala aurkezten da:

Argi dago auzoa ez dela kontzeptu zientifiko bat. Eta ez dela kontzeptu soilik soziologikoa, ezta ere. Egia esan, hirigintzan azken boladan hainbeste erabiltzen den auzo kontzeptuak gehiago du ideologikotik soziologikotik baino. Kontzeptu politiko da; politikaren zentzu etimologikoan: polisari —estatu-hiriari— dagokiona. Alegia, kontzeptu urbanistikoa hutsa da auzoa. Alde horretatik, —komunitateko— hirigintzarako tresna garrantzitsu gisa hartu beharko litzateke, zalantzarik gabe (Fernández de Betoño, 2014: 96-97).

Hortik hirigintza-parametroetara garamatza autoreak eta horien artean ordenantzak, arkitektura eta hirigintzaren bitartekari diren jarraibide orokor edo berezituagoak. Hiri-ordenantzen inportantzia areagotu egin zen hiri industrial bortitzaren garapenean, osasun-arazoak zirela medio, eta, hortaz, hiriko zerbitzuekin erlazionaturiko gai estrategikoa izan da ordutik, baita zonifikazioaren hirigintza-teknika gauzatzeko ere, baina horren aurretik hiri-zabalguneena ere XIX. mendean. Denborarekin konplexuago bihurtu dira partzelak eraikuntzak atontzeko, beraien formak zein erabilerak arautuz. Izan ere, beharbada ordenantzak hirigintza-zuzenbidearen diziplina zabalagoan mugatuko liriateke, horiek ere lehen industrializazioak probokaturiko korapiloak askatzeko zabalgunek burgesen hirietan (edota hobeto esanda burgesiaren hiri-zabalguneetan). Udalaren eta partikularren arteko elkarrekintzak (urbanizazioan eta eraikuntzan) publikoaren eta pribatuaren aztoratzea eragingo zuen behin eta berriro, eta hirigintza-espekulazioaren mesedetan prozedura handiak martxan jarri.

6. Borja, J. (2005): «Democracia y buen gobierno. Participación ciudadana e innovación política. La gestión de proximidad». *Declaración del 10 de marzo de 2006*, 10-11 (norberaren itzulpena).

Garai berriagoetara eta latitude gertuagoetara urreratuz, gurean Espainiako Estatu frankistako 1956. urteko Hirigintza Lege ezagunaren trazarik nabarmenenak planteatzen dizkigu autoreak, hasierako ikuspegi «sozial samarra» nola demontre malgutzen joan zen urteekin, hirigintza-estandarren, derrigorrez bete beharreko parametroen eta aprobetxamendu kontzeptuaren bidez, besteak beste. Lege horren ustezko onurek, hala ere, 1960 eta 1970eko garapen mugagabera bultzatu gintuzten, Euskal Herrian kostaldeari perpendikularrak diren bailara industrialetan efektuak sano igarriz, hirigintza eta lurraldearen antolaketako eskumen-transferentziak Eusko Jaurlaritzak lortu arte, 1980ko hamarkadan. Hor beste parametro batzuekin jokatzeko da; lurzoru urbanoa, urbanizagarria, etab. Jasan behar izan ditugun lege «liberal» ek lurzoru oro «urbanizagarri» bilakatu zuten goizetik gauera, eta horrek «adreiluaren burbuila» putzarazi zuen batez ere «Hego Euskal Herria» deritzogun lur-pusketan. Aitzitik, Ipar Euskal Herrian bestelako ikuskizuna (arras konplexuagoa) deskribatzen digu autoreak, baina dena dela administrazio frantziarraren berrantolatze-prozesu ikaragarriaren baitan txertatua; lurralde-kontratuak, kontseiluak eta abar, beharbada politikoki bideratuagoak eta Estatuak dituen eskumen nabariagoekin.

Orotara, Euskal Herriko lurralde-antolakuntza azpiegitura handiei eta komunikazio-sare zabalei zein demasekoei begira egotea leporatzen dio autoreak, «globalak edo ikuspegi integralekoak izateko jaiok diren lurralde-plan askok plan sektorialen tankera handiegia edukitzen bukatu dutela» (Fernández de Betoño, 2014: 120). Eraikigarritasun-aprobetxamenduaren garaiko plangintzatik, higiezin sen partikularren defentsan errotuak, ekipamenduen eta garraio bideen aroko plangintzarako iragabidera izan dugu gida-lerro, egitamu eta estrategia ideologikoekin; zuzenketa-plan eta berrezarpen-planetatik plan morfologiko postmodernoetara, eta handik 1990eko hamarraldiko «plan berde»etara, baina berriro nolabait garapenezko plangintzetara itzultzeko eta azkenengoak izugarrikeria urbanistikoak samurtzeko pentsatuak. Hau da, hedapen-kutsuko planak (hazkunde ekonomikoaren ildoan, espekulatiboak eta partaidetza urrikoak), hirigintza azkarra eta lehiakorra helburu. Horien gibelean hirigintza «geldoagoa» eta eraberritzailea, zeina birziklapenaren defendatzailea den printzipioz, eta parte-hartzea kolektiboarengana zuzentzen duen. Euskal Herrian figurarik behinenak Plan Orokorrak, Plan Partzialak (lurzoru urbanizagarriko sektore edo «poligono»etan), Atalkako Planak (sektorialak) eta Hiria Antolatzeko Plan Bereziak ditugu, hiri-lurzoru ez-finkatuko areak garatzeko. Desberdintasunak eskala-zuzkiduretan eta sistema lokal zein orokorren egituraketan aurki daitezke, epemugetan edota hirigintza-betebeharretan antolakuntzaz kanpo dauden elementuak ere kontrolpean edukiz. Alabaina, azken boladan hiri-proiektuak ordezkatu ditu, maila edo eskala txikiagoan bada ere, ohiko plangintzaren kompetentzia batzuk, batez ere hiri industrialetako espazio berreskuratuak arkitektura-taldean eta lehiaketan bidez gauzatu, edo arkitekto ospetsuei enkargu zuzenak eginez. Hirigintzaren eta arkitekturaren eskalen tarte estua definitzen, jarduera-eremu mugatutik haratago ere sentitzen dira haren lurralde-eraginak (Bilboko kasua aipagarriena litzateke Euskal Herrian).

Tresna «errealista» legez ulertua, «berehalako kudeaketa» proposatzen du. Horren defendatzaile pisutsuenen artean, Oriol Bohigas Bartzelonako berreskuratze-prozesuko arkitekto behinena, eskala ertain horrek ulergarriagoa egiten baitu

herritarrentzat eta, gainera, osagai publiko garrantzitsuko programa kolektiboek parte-hartzea susta dezakete; abantaila probetxugarria.

Bosgarren eguna

«Horixe da erronka. “Terra”, “urbs”, “polis” eta “civitas” direlako dimentsioak biltzen dituen hiri iraunkorraren atzean dagoen paradoxa handia adimena aplikatuz gainditzen lortzea».

U. Fernández de Betoño (2014: 161)

Araitze aldera «Civitas» edo hiritargoaren dimentsioa ekartzen digu autoreak, eta orainaldian bagabiltza, «ikuskizunaren hiri postmodernoan» murgilduz. XXI. mendeko hiri espezializatuarekin elkarriketan jartzen gaitu «errepidez josi» behar dugun eskualde-hiri aglomerazioan. Logika liberal berriaren eta hazkunde ekonomiko neurrigabearen hiria, kontsumokoa eta inbertsiokoa. Gauza horiek guztiak erakarri behar dira «hiri lehiakor»rera eta horretarako edozein jokabidek duintasun-jantzia har lezake. Hiritarren hiria izatetik erosleen hiria izatera pasa da, arrakastatsua eta kontsumorako bezain prestu «zuzentasun politiko»an eroria, ikur sinboliko anitzekin boterearen presentzia argiro adierazteko, zeren kontsumo bilakatu baita «kultura»; edozein delarik haren agerpena, nazioarteko markak nahiz frankizia-museoak. Hiri globala klonikoa da kultura inozoan sostengatzen den ereduarekin:

Bilboren eraberritze osoa Guggenheim eraikinari sor zaion ustea zabaldu da mundo osoan. Izan ere, oso barneratuta dago Bilboaldeko antzinako ekoizpen-industrialia beste industria mota batek ordezkatu duela: kontsumismoaren eta merkantilismoaren industria postmodernoak. [...] Arintasunaren eta ilusioaren hiria Coketown gogor eta instrumentala ari da ordezkatzeko (Fernández de Betoño, 2014: 132).

Horren testigu aparta Iñaki Azkuna alkate ohiaren esaldi adierazkorra: «Itsa-sontziak eraikitzen genituen leku berberean orain kultura sortzen dugu» (Azkuna *dixit*). Hiri horretan baina, egitura kolektibo kritikoak ez dira egundo ongi etorriak, ikur «sakratu»en aurkako «pekatuak» botatzeak mehatxua eta mesfidantza eragiten baititu. Hortik hirian ezarri beharreko kontrola «herritarrak zaintzeko» eta «gure segurtasuna» bermatzeko; hau da, «gure onerako». Baina espazio publikoa guztiona izateak kaltetu egiten du ikuskizuna eta irudia, merkataritza eta negozioetarako ideala.

Mugimendu horien aurrean hiri-birgaitzeak dakartzan kontrakotasunez mintzo da autorea; kolonizazio berria, gentrifikazioa eta horrek eragindako segregazioa adibidez, biztanle-poltsen eraldatze bezala zenbait fasetan «hiri-marketin» aren ideologo ofizialek bultzatua gizarteko beste geruza batzuen laguntza edo isiltasunarekin. Horrela eratzen doaz «auzo kulturalak», «artisten distrituak», jende sofistikatua batzeko guneak, eta hiri osoko eskalan ezein etiketa postmodernoren asmakuntza: Europako Hiriburu Berdea (Gasteiz, 2012), Europako Kultura Hiriburua (Donostia, 2016), Diseinuaren Hiriburua, Gastronomiaren Hiriburua... noizbait Munduko Hiribururik Bikainena (Bilbo, ?). Hor tartean daude diru-laguntzak eta «diskriminazio positiboak», baina ohi den gisan horiek «diskriminazio negatiboak»

ere badakartzate (kontrolpeko egitasmoak, debekuak, etab.). Modu horretan antolaturiko eta funtzionaturiko hiria ez da parte-hartzearen onura kolektiboan eta auzolanean oinarritzen; ez da fio eta ez dauka «fede»rik. Herritar-kolektiboaren zeresana indibiduoaren gainetik kolokan gelditzen da eta buruak zuzitzeko programa herritar batzuk abian jartzen badira ere (Bilbon Zorrotzaurreko egitasmoa kasu), ez daukate inolako izaera loteslerik eta intentzio guztiak ezbaian mantenduko dira harik eta araututako alegazio-epeak eta abar igaro arte. Haize-bolada horien muinoetan agertzen zaigu baita garapen iraunkorraren leloa altxatzen duen hiria ere; «eko» etiketa nonahi. Garapen espazial «iraunkor»raren hiruki-hankak gizartea, ekonomia eta ingurumena badin badira, gaur egun erpin horiek kezkatzen gaituzte, baina buruhauste gehien sortzen duena ekonomia litzateke, eta horren pentsuan leudeke besteak. Kostaldean etenik gabeko jende-pilaketa baldintzatzen duen modeloa, itsas maila igotzen doalarik, «metaketa demografikoak» berak erakargarritasuna areagotuz eta horri berorri migrazio-mugimendu globalak ere gaineratuz. «Mirari teknologikoa» espero bada ere, ez da garaiz helduko, edo iritsita ere, ez da nahikoa izango. Bitartean aldirietako hiri lausoarekiko eta landa-eremuan barreiatutako hiriaren aurkako dentsifikazioa proposatzen duten ekimenak ere baditugu, hirigintza-ereduen berrikusketa erdietsiz «burujabetasun konektatu»aren gakoarekin. Orain arteko apustua garapena izan da; etorkizuneko iraunkortasuna baldin bada, ezin izango zaio garapenari eutsi. Izan ere, «garapen jasangarri»ak bere ariman kontraktotasuna darama irmo sustraiturik. Baina noski, adimen eta kontzientzia garbia behar dira horretarako.

Azken eguna

«Kritika distantzia justuaren eginkizuna da».

W. Benjamin

Bukaera iritsitakoan, hau da, bost egunen bueltan osatua daukagu hirigintzaren oinarrietatik osteratxo zehatz eta pedagogikoa. Ordurako asimilatua eta barneratua daukagu autoreak darabilen eskema orokorra: lehenengo eta behin kontzeptuak izendatzen eta aurkezten dira, gero beraien historiaz xehetasunak gaineratzen dira adibide praktikoekin. Horren ostean Euskal Herriko kasu konkretuak aipatzen dira eta, azkenik, sor daitezkeen arazoak, mugak, etab.

Esandakoaz gain zentzuz hautaturiko bibliografia aukeratuari ere errepara diezaiokegu, gaiarekin bat datozen titulu sorta neurrizkoarekin edota zinez eskertzekoa den aurkibide onomastiko alfabetikoarekin, bertan hainbat izen ezagun eta ezezagun topatuz. Ikusgai den parte dastagarriagoa izan dadin, plano, krokis-irudi eta argazkiz baliatzen da autorea, ez soilik ilustragarriak, osotasunaren egiturarekin artikulatuak eta kateatuak baino. Behinola kritika distantzia justuaren zeregina eta meritua dela zioen Walter Benjaminek. «Hirigintzaren oinarri»etan kritika egotea ezinbestekoa da, baina «distantzia bidezko»arekin. Argiago ezin daiteke utzi...; ozenago ez dakit.

Isusko Vivas Ziarrusta